



ZALDIBIAKO UDALA
ALKATETZA
(Gipuzkoa)

COVID-19: ZALDIBIAKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

2020ko martxoaren 31an eguneratua

UDAL INFORMAZIOA zuzenean jasotzeko.

- Zaldibiako Udalak zuzenean informazio garrantzitsu oro jasotzeko whatsapp kanala jarri du abian.
 - 680 79 54 73 telefonora INFORMAZIOA hitza bidaliaz udal informazio garrantzitsua jasoko duzu zure mugikorrean.
 - 680 79 54 73 telefonora INFORMACION EN CASTELLANO hitza bidaliaz udal informazio garrantzitsuena Euskaraz eta gazteleraz jasoko duzu zure mugikorrean. Lehenengo Euskaraz jasoko duzu eta minutu gutxiren bueltan gaztelerazko itzulpena jasoko duzu.

OSASUN ZEBITZUAK jaso ahal izateko.

- Osakidetzak giza baliabideak berrantolatze asmoz Zaldibiako mediku kontsulta itxi du.
 - Mediku kontsulta eskatzeko **telefonoa betikoa da: 943 007 635**

PREMIAZKO LEHENGAIK etxean jasotzeko.

- Zaldibiako Udalak etxez etxeko lehen gai eta janari bilketa zerbitzua jarri du abian. Janaria, lehen gaiak eta osasun botikak etxetik telefonoz eskatu eta etxean jasoko dira.
- **NORK egin dezake eskaera?**
 - 65 urtetik gorako pertsoneri edota arrisku talde bezala identifikatu direnak.
 - Berrogeialdia (*kuarentena*) bete behar duten guztiak.
 - Gaixo etxeko konfinamendua bete behar duten guztiak.
- **NOLA egin dezake eskaera?**
 - Behar duzunaren zerrenda egin eta deitu 943 880 357 telefonora.
 - Hurrengo egunean, eguerdia baino lehen zure etxeko atarian edo atean jasoko duzu eskatutakoa.
- **ORDAINKETA nola eta noiz?**
 - Udalak aurreratuko du herriko dendetako zure erosketaren kostua eta egoera normaltasunera itzultzean, adostuko dugu nola kitatu.

HONDAKINEN KUDEAKETA

- **Zaldibian indarrean dagoen atez ateko hondakin bilketa sistemak berdin jarraituko du.** Aldaketa eta ohar txiki batzuk kontutan izatea eskatzen da.
 - Pixoihalentzako hiru edukiontzi jarri dira herrian zehar.
 - Kuboen barruan atera behar dira hondakin guztiak. **Ezin da kubotik kanpo ezer atera.**
- **GAIXO edo BERROGEIALDIA BETE BEHAR DUTENEN hondakinak modu berezitu batean kudeatuko ditugu.**
 - Horretarako Udalera deitu beharko dute 943 880 357ra eta bertatik azalduko zaie nola kudeatu behar dituzten hondakin guztiak etxe barruan.
 - Udal langileak pasako dira etxez etxe aurrez zehazturiko protokolo baten baitan hondakin hauek jasotzera.



ZALDIBIAKO UDALA
ALKATETZA
(Gipuzkoa)

UDAL TRAMITEAK eta ADMINISTRAZIOA atek itxita baino lanean

- Eraikin publiko itxita eta ekitaldi guztiak bertan behera geratu badira ere, Udal Arreta Zerbitzua eta bestelako sailak martxan daude. Jarraian harremanetarako bideak:
 - Harrera Zerbitzu Orokorra: 943 88 03 57 / bulegoa@zaldibia.eus
 - Ongizate zerbitzua: 943 88 20 00 / gizarte@zaldibia.eus
 - Idazkaritza: idazkaritza@zaldibia.eus
 - Kontu-hartzailera: kontabilitate@zaldibia.eus
 - Hirigintza - arkitektoa: arkitektoa@zaldibia.eus
 - Kultura: kulturetxea@zaldibia.eus
 - Berdintasuna: berdintasuna@zaldibia.eus
- **ORDUTEGIA** (2020ko martxoaren 31an)
 - ARRETA ZERBITZUA: astelehenetik ostiralera 8:30etik 18:00etara.
 - GIZARTE ZERBITZUAK: astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala 8:00etatik 15:00etara.

GARRAIO PUBLIKOAn murrizketak egin dituzte

- Lurraldebusek jakinarazi digu ezarritako alarma-egoera dela eta, Lurraldebusen zerbitzuak %40 eta %60 artean murriztu dituztela ohiko eskaintzarekin alderatuta, Ospitaleetako zerbitzuak izan ezik, horietan ohiko zerbitzua mantentzen da, zerbitzuen % 100a. Hemen dituzue ordutegiak.
 - Informazio eguneratua: www.lurraldebus.eus eta www.zaldibia.eus

ALARMA EGOERAN BETE BEHARREKO NEURRIAK 2020/03/31

- Alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, **soilik kasu hauetan atera ahal izango dute pertsonak etxetik:**
 - a) Elikagaiak, farmazia-produktuak eta lehen mailako produktuak erosteko.
 - b) Osasun-zentro, zerbitzu eta establezimenduetara joateko.
 - d) Ohiko bizilekura itzultzeko.
 - e) Adinekoei, adingabeei, mendekoei, desgaitasuna duten pertsonen edo bereziki zaurgarriak diren pertsonen laguntza eta zaintza emateko.
 - f) Finantza eta aseguru erakundeetara joateko.
 - g) Ezinbesteko kausagatik edo premia egoera bat gertatzean.
 - h) Banaka egin beharreko antzeko beste edozein jarduerara arrazoi justifikatuen batengatik.

**Etxeko animaliak beren beharrak egitera atera daitezke, baina ez paseoan eta kontuan izan higiene eta desinfekzio neurriak hartzea.
- Halaber, **ibilgailu partikularrek erabilera publikoko bideetan zirkulatu ahal izango dute, aurreko paragrafoan aipatutako jarduerak egiteko edo gasolina-zerbitzuguneetan edo gasolina-zerbitzuguneetan erregaia hartzeko.**
- Nolanahi ere, **lekualdaketa osasun-agintariek emandako gomendioak eta betebeharrak errespetatu beharko dira.**
- Barne Arazoetako ministroak **errepideak edo bide-zatiak zirkulazioari ixtea erabaki ahal izango du**, osasun publikoa, segurtasuna edo zirkulazioaren arintasuna dela eta, edo arrazoi berberengatik ibilgailu jakin batzuen sarbidea murriztea.

Zaldibian, 2020ko martxoaren 31an